

## **OLATU TALKAKO KONTZERTUETAN ETA KONTXA GAUMARKET Merkatuan izena emateko epea ireki da**

### **MARTXOAREN 4RA ARTE DUTE AUKERA MUSIKARIEK ETA SORTZAILEEK**

Olatu Talkako **kontzertuetan** jo nahi duten **talde** edo **bakarlariek** eta **Kontxa Gaumarket**en saltokia jarri nahi duten **sortzaileek** oraintxe dute aukera, haien eskaerak aurkezteko tarte izango baitute **martxoaren 4ra arte** [www.olatutalka.eus](http://www.olatutalka.eus) webgunean.

#### **Kontzertour**

Olatu Talka jaialdian, **maiatzaren 25, 26 eta 27**an, egiten den kontzertu zirkuitua da **Kontzertour**. Bertako musikariek egiten duten lana erakusteko eta jendaurrean jotzeko guneak eta plataformak behar dituztenez, Kontzertour ekimenaren bidez **entsegu lokalean** emandako orduen **emaitza erakusteko eszenatokiak** eskaini nahi zaizkie. Horretarako, [www.olatutalka.eus/eu/izen-ematea](http://www.olatutalka.eus/eu/izen-ematea) helbideko fitxa bete eta bidali besterik ez da egin behar, eta **martxoaren 4ra** artekoa da **epea**.

Olatu Talkako kaleko eszenatoki batean eta azpiegitura profesionalarekin euren **musika** ikus-entzuleekin **partekatu** nahi duten talde eta bakarlarientzat da eskaintza, eta **edozein estilok** izan dezake lekua: Rock, Pop, Folk, Funk, Jazz, Elektonikoa, Bossa, Cumbia, Metal, Psych, Soul, RnB, Ambient, Fusioa, New Age, Reggeae, Dub, Ska, Punk, New Wave, Trap... edozein etiketa (edo bat ere ez) egokia izan daiteke Kontzertourren.

Proposamen kopurua egin beharreko kontzertu kopurua baino handiagoa bada, **Olatu Talkako** koordinazio **taldeak aukeratuko** lituzke egoki ikusten dituen taldeak edo bakarlariak.

#### **Kontxa Gaumarket**

Aurten ere Olatu Talkan **Kontxako arkupeak**, Cervantes plazatik Kontxako erlojuetara, **merkatu** bihurtuko dira **gauetz** (18:00etatik 00:00etara), eta bertan **saltokia jarri nahi dutenek** oraintxe dute eskaera aurkezteko aukera. Kontxa Gaumarket **maiatzaren 26an** izango da Kontxako arkupeetan. Merkatu hau beren diseinuak zein produktuak erakusteko edo merkaturatzeko **denda fisikorik ez** duten **sortzaileentzat** da. Martxoaren 4ra arte egongo da irekita izen-emate epea [www.olatutalka.eus/eu/izen-ematea](http://www.olatutalka.eus/eu/izen-ematea) gunean.

Antolakuntzak jasotako proposamenen artean aukeraketa egingo du eta izena eman dutenekin harremanetan jarriko da, hautatuak izan diren edo ez zehazteko.

#### **Herritar eta eragileen proposamenak aztertzen**

Bestetik, **urtarrilaren 31n** bukatu zen Olatu Talka jaialdian **proiektu orokorrak** martxan jarri ahal izateko proposamenak aurkezteko epea, eta urtero bezala, herritar eta eragileen **erantzuna primerakoa** izan da. Olatu Talkak **eskerrak** eman nahi dizkie proposamenak aurkeztu dituzuen guztiei, eta jakinarazi nahi du horiek guztiak aztertzen ari dela, eta aztertu ondoren, epe motzean erantzungo diela proposamena aurkeztu dutenei.